

2- MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresa batez beste 20 eta 50 urte bitarteko pertsoneri zuzenduta dago, batez ere erdi eta goi-mailako erosketa-mailakoei.

Pertsona abenturazaleak, natura gustuko dutenak, hainbat herrialdetara bidaiatu nahi dutenak, abentura fisiko eta mentaleko joko bat egin nahi dutenak. Jolas horretan, istorio bat ebaztu beharko dute, eta, horretarako, trebeak izan beharko dute era guztietako enigmak eta erronkak konpontzeko, beren alderik sortzaileena eta irudimentsuena garatuz, beren adimena eta zorroztasuna azaleratuz.

Pertsona proaktiboetan jarri nahi dugu arreta, gure webgunearen bidez beren balorazioak eta iritziak hobetzen lagun diezaguketenak eta Interneteko hainbat kanaletan balora gaitzaketenak.

Inkesta baten bidez, merkatu ikerketa bat egiten ari gara gure bezero potentzialen artean, besteak beste, ideiarene onarpen maila, adina, Europako herrialdeen artean dituzten preferentziak eta ordaintzeko prest dauden prezioak kontrastatzeko asmoarekin.

Inkesta ikusi ahal izateko:

<https://www.surveio.com/survey/d/X3R4Q5O5M6P6K7G6F>